



ORAIN DA TXANDA...

2016 - 2017
IKASTURTEA

 **Ayuda en
Acción**
Ekintzaz Lagundu

Argazkia: Salva Campillo / ABA

Orain da Txanda... zure ikastetxean!

Orain da Txanda... izena du Ekintzaz Lagundu elkarteak zure eskolan garatzen duen hezkuntza-programak. Ikasleek munduan hainbat pertsonak bizi dituzten kultura, ohitura eta errealitate desberdinak ezagutzeko leiho bat ireki dute hezkuntza-komunitateek.

2016-2017 ikasturtean, desberdintasunei buruz, haurren eskubideei buruz eta, bereziki, hezkuntza-eskubideei bezalako gaiei buruz hausnartzen ikasiko dute ikasleek, baita gatazkak konpontzen ere, geletako elkarbizitza bultzatzeko.

Orain da Txanda...



MALGUA da

Ikastetxe edo gela bakoitzak aukera dezake zer, nola eta noiz landuko duen.



ADIN BAKOITZARI EGOKITUTAKO MATERIALAK ditu

Lehen hezkuntzako lehen ziklotik hasi eta Bigarren Hezkuntzara arte.



HIZKUNTZA UGARITAN ESKAINTZEN DIRA MATERIALAK

Estatuko hizkuntza guztietan eta ingelesez.



BABES-EKINTZAK sustatzeko proposamenak

Gure hezkuntza-proiektuei bideratutakoak.



Materialek barne dituzte FAMILIAN lantzeko fitxak

Gelan hausnartutakoa indartzeko.

Jarri martxan zure gelan. Nola jarri azalduko dizugu!



Orain da Txanda... hezkuntza-programa osoa eskura duzu gure blogean: programaeducativo.ayudaenaccion.org



DESKARGATU gehien interesatzen zaizkizun materialak.

Ikasturte honetan, gure blogean argitaratutako ariketak proposatzen dizkizu hezkuntza-taldeak, baina interesa dakizkizun beste gai eta jolas-baliabide batzuk ere aurkituko dituzu.



PARTEKATU ZURE BIZIPENA.

Anima zaitez eta kontu iezaguzu nola lantzen dituzuen eta parteka ezazu gainerako eskolekin. Horretarako, bidali informazioa helbide honetara: educacion@ayudaenaccion.org.



Bloga da hezkuntzarekin eta elkartasunarekin lotutako **ALBISTEAK** partekatzen ditugun tokia.

Iturri ona izan daiteke ikasleek errealitate desberdinak ezagutzeko eta mundu justuago bat eraikitzeko lankidetzak duen balioa ezagutzeko.



GARAPENERAKO HEZKUNTZA EKINTZAZ LAGUNDU ELKARTEAN

Ekintzaz Lagundu elkarteak bere ildo estrategikoen artean du Garapenerako Hezkuntza, pertsonak era integralean hez- teko sormenezko prozesu dinamiko eta parte-hartzaile gisa ulertzen du, gizakia erdigunean hartzen duena eta desber- dintasunen eta pobrezia-aren arrazoen analisiaren aurrean espirtu kritiko bat bultzatzera bideratutakoa. Garapenerako Hezkuntza oinarritzen duten printzipioak dira: ikaskuntza aktiboaren prozesua, herritar kritikoak sortzea eta gizartea eraldatzeko eta erantzukizun sozialaren ikuspegia.

Uste dugu Garapenerako Hezkuntza ikaskuntza prozesu aktiboa dela, eta honetara bideratuta dagoela: munduko errealitatea ezagutaraztera; mobilizatzea eta parte-hart- ze aktiboa bultzatzera tokian tokitik gizartea eraldatzen laguntzeko eta mundu-mailako herritar kritikoak eraikit- zeko, Giza Eskubideak bete daitezen ziurtatzeko modu korrespontsanean jarduteko konpromisoa har dezaten eta, horrela, gizarte-justizia lortzeko.

Jarraitu Orain da Txanda... programaren berri guztiak:



ayudaenaccion.org/ahoratoca



EducacionAeA



@EducacionAeA

Jarri harremanetan hezkuntza-taldearekin:

educacion@ayudaenaccion.org

edo deitu telefono-zenbaki honetara: **900 85 85 88**.